

ESTITXU PINATXO

Estitxu 198an Beran sortu zen. Haurra zela musika ikasten hasi zen Berako musika eskolan. Hasieran, akordeoia jotzen ikasi zuen eta ondotik bertze musika-tresna batzuk. Gaztetxoa zela kantatzan hasi zen eta 15 urterekin profesional modura kantatzen hasi zen.

Euskal Telebistarendako lan egin zuen musikari lotutako hainbat telebista saiotan. Telecinco kateko La Voz saioko eta Antena 3 kateko El Número Uno saioko lehiakide izan zen.

Damba musika taldeko abeslari izan zen. Rocka, bluesa, jazz, rumba eta regge estailoak jorratzen zituen talde honek.

Mikel Santxez musikariarekin batera “Dama beltzak” izeneko proiektua sortu zuen. Ella Fitzgerald, Nina Simone, Roberta Flack, Etta James eta Aretha Franklinen kantuak abesten zituzten.

Estitxuk “Haize Gorri Batek”, izeneko disko bat atera zuen .

Kantu ospetsuak: Hallelluyah , Alargun zoroarena eta Gizon mundu hau.

Hallelluyah:

<https://www.youtube.com/watch?v=ngVGJ-mAd28>

Letra:

Aire sekretu bat bazen,

Davidek jo, Jaunak laket,

baina zuri musikak ze(r) axola?

Hola doa: laga, boga, minor be(he)ra, maior gora,

errege_aztoratuen Aleluia

Aleluia! Aleluia!

Aleluia! Aleluia!

“Fedeak ez du balio”

lamiak halaxe dio:

“lotuko zaitut

sukaldeko aukira...!”

Apurtu dizi tronua,

moztu ilearen jira,

eztarritik erauzi:

Aleluia!

Jainkorik bada? Akaso.

Maitasunak ez dit erakutsi asko,

ene aurkaria

tirokatzen baino...

Ez da lantu gauerdian,

kandelargi(a) ere ez, agian,

aleluia hotz eta apurtua da!

Aleluia! Aleluia!

Aleluia! Aleluia!

Egon naiz hemen le(he)n(ag)o,

gela ezagun, lurra lagun,

zu topatu arte, lurra lagun,

zu topatu arte (nintzen) bakarrik.

Bandera arkuan txutik,

maitasuna ez da desfile baizik,

gauza zirtzil(a) (e)ta ospela,

Aleluia!

Aleluia! Aleluia!

Aleluia! Aleluia!

Behiala azaldu zenidan

zer den gure oin azpian

baina hori jada amaitu da, ala?

Zure baitan nintzenero

uso santua hegaz unero,

jaulkitako hats oro (zen),

Aleluia!

Nire onena, askorik ez,

ezin senti, ukimenez...

Zinez, ez dizut egin iruzurrik.

Halere, zer,

dena oker?

Zure aurrean zutik nager,

mihi puntan dudan oro (da)

Aleluia!Aleluia! Aleluia!Aleluia! Aleluia!

Egileak: Uxue Mindegia eta Ane Garaikoetxea